

Txirrindularitza ◆ Espainiako Vuelta

Wust: «Cipollini balego, askoz hobe»

Agentziak / Albacete


ETAPA garaipenarekin «gustura» zegoela azaldu arren, Cipollini Vueltan egotea nahiago lukeela adierazi zuen atzo Marcel Wustek: «Bera egongo balitz, garaipenak balio berezi bat izango luke». Taldekideek egindako lan aparta goraiatu zuen halaber, txirrindulari alemaniarrek: «Nire taldekideek eginiko lana errematatu besterik ez dut egin. Egun osoan geuk egin dugu lan gehien, eta ezin nuen hutsik egin».

Festina taldeko kirol zuzendari Juan Fernandez arabarrak, bestalde, bere txirrindularia zoriontzeaz gain, garaipena hain bizkor lortu izanak «bide beretik jarraitzeko lasaitasuna»

emango diela gaineratu zuen. «Ez dakigu Marcel Madrila iristeko gauza izango den, eta horregatik, aurkezten zaizkigun aukerei heldu behar diegu», esan zuen Fernandezek.

Jalabert okerrago

ONCE taldeko Lauren Jalabertek, berriz, oraindik sasoi puntu onenetik urrun dagoela esan zuen atzoko etaparen amaieran: «Atzo ondo ibili nintzen arren, gaur okerrago sentitu dut neure burua, eta igoeretan dezente sofritu dut». Burgosko Itzulan erori ondoren, oraindik ere lehiaketarako erritmoa hartzea falta zaiola uste du Jalabertek, eta aurkariak aldiz oso indartsu aurkitzen direla.



Esprinterrentzat egokia. La Roda eta Fuenlabrada arteko etapa luzea erabat aproposa da esprinterren batek irabazteko. Eguneko eragozpen bakarra helmugatik urrun dago.

Txirrindularitza ◆ Etorkizuneko Tourra

Etapaz Nazonentzat

Erredakzioa / Donostia

DAMIEN NAZON frantziarrak irabazi zuen atzo Etorkizuneko Tourreko bosgarren etapa, esprintean. Le Française des Jeux taldeko txirrindulariak Franck Renier eta Sebastian Joly herkieei aurre hartu zien Montbroneko helmugan. Sailkapen nagusian, Yoenn Le Boulangerrek jarraitzen du lider, Unai Osa lauga-

rreren dago hiru minutu pasara, David Latasa zazpigarren, Alberto Martinez zortzigarren, eta Haimar Zubeldia bederatzigarren.

Sailkapenak

5. etapa		
1. Demien Nazon	5.00:41	
2. Franck Renier	d.b.	
3. Sebastian Joly	d.b.	
Nagusia		
1. Yoenn Le Boulanger	16.01:47	
2. Floyd Landis	47ra	
3. Jorg Ludewig	3:10era	

Tau ◆ Millsi espediente ireki zaio lau egun berandu heltzeagatik

Komeria gehiegi

Arazoak pilatu eta galtzen hasi da Baskonia


Luis Karlos Garcia / Gasteiz

KOMERIAK hasteko. Tau Baskoniak ustegabeko oztopo gehiegi topatu ditu denboraldi hasiera arraro honetan, eta ondorioa jakina da: Ligako lehendabiziko porrota Pamesaren kantxan (92-85).

Mills kasuak goitik behera baldintzatu zuen Valentziako partidua. Pibota iragan igandean heldu zen Estatu Batuetatik, behar baino lau egun geroago, eta batere argibiderik eman gabe. Seme jaio berria ikustera joan zen, baina jokalaria argudiatu zenez, amak erditzean problema izan zituen eta uste baino gehiago geratu behar izan zuen. Zergatik ez esan, ordea?

Millsek ez zuen Valentzian jokatzetik izan, eta Baskoniak espediente informatiboa ireki dio gertatutakoak argitu nahian. Izan ere, min dezente egin du jokalaria jarrerak Gasteizko taldeko agintariengan, Mills gabe jokatu beharra izan zen Pamesaren aurka galdu izanaren arrazoietako bat.

Baina jokalaria desagertuaren auzia ez zen arazo bakarra, Valentziara zihoan espedizio baskonista jota ailegatu baitzen (igande goizaldean heldu zen, hegazkinekin makina bat arazoren ondorioz). Maldonado eta enparauak partidua jokatu baino zortzi bat ordu lehenago sartu ziren ohean! Kontu gehiegi Tauk Tanoka, Hop-



Tanoka Beard saskira jaurtitzen, Juan Antonio Moralesen aurrean.

kins eta abarri aurre egin ziezaion. Nolanahi ere, lortu egin zuen, 30. minutuan Pamesak gogor jo eta aurkaria lurrean buruz behera laga zuen arte.

Winters lesionatu egin da

Baina Tau Baskoniaren hasiera malapartatuak beste atal bat ere izan du. Taldeko prentsa zerbitzuak atzo jakinarazi zuen Voise Lee Winters

pibotak lesioa pairatu duela ezkerreko belaunean, eta, beraz, ez dago batere argi bihar Araban Unicaja hartzeko neurketan jokatzeko gertu izango denetz. Lesio arina dela ematen du, baina beste problema bat da Maldonado-rentzat, barruko jokoan hamaika oztopo aurkitzen ari den honetan. Dena den, bihar 20:30etan izango da hutsak kitatzeko unea. Aurkaria, Maljkovicen Unicaja... eta komeria.

Rallyak ◆ Maulekoak hirugarren aldiz irabazi du Gailurretako Rallya

Aurten ere Couillet nagusi

Allande Sokarros / Maule

AURTENGO Gailurretako Rallyaren emaitzek antzekotasunik badute iazkoarekin. Izan ere, 1998an bezala, 43. aldi honetako irabazlea Patrice Couillet mauletarra izan da, bigarrena Anixet Garikoitz gotaindarra, eta hirugarrena Jean Agerre mauletarra. Couilletek hirugarren urtez jarraian bereganatu du Frantziako lur bideetako rally

gogorrena eta ospetsuena. Lehiaketako 14 probetatik 8 irabazi ditu, eta hirutan bigarren iritsi da.

Podiumeko bigarren mailara, berriz, Anixet Garikoitz igo da, eta emaitza honekin sendotu egin du Frantziako lur bideetako rallyen txapelketako bere lidergoa. Lau proba irabazi ditu eta beste horrenbestetan bigarren iritsi da. Beraz, Patrice Couilleti aurten gailentzeko ez zela gai

erran badu ere, pentsatzekoa da, Frantziako txapelketaren ikuspegiari, ondo sailkatzeari eman diola lehentasuna.

Gailurretako Rallyan hirugarren lekuaz jabetu denak inork baino hobeki ezagutzen du Zuberoako proba, zeren eta, Jean Agerrek, bost aldiz irabazi izan baitu aurretik. Mauletarrak oraindik ere oso pilotu ona dela erakutsi du, podiumera igo baita 62 urterekin.